



BERRIA Komunikazio Eskola



Eka. 15 2018

Kod. I05-18

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2018

Jarduera mota

Eskola

Data

Eka. 15 2018

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

BERRIA Komunikazio Taldeak XV. urteurrena ospatuko du 2018an. Hamabost urte ez dira asko herri baten bizitzan, baina euskal prentsarentzat ez dira hutsalak izan. BERRIA ez da hamabost urteko egunkaria, Euskaldunon Egunkariaren oinordekoa hartuta sortu baitzen, eta haren esperientziaren eta aurreko euskal hedabideen lekukoa hartuta abiatu. Aukera ezin hobea da 2018ko Udako Ikastaroetako plaza BERRIaren lantaldeak urteotan metatu duen eskarmentu handia, eta bere kazetaritza moldearen gakoak partekatzeko eta erakusteko. BERRIA Kazetaritza Eskolan, eguneroko jardunari lotutako gaien inguruko hausnarketa eta jarduera praktikoak eskainiko dira.

Helburuak

Euskarazko kazetaritzaren beharraz kontzientziaztea.

BERRIaren kazetaritza lan moldeak erakustea eta zabaltzea.

BERRIA bera publiko zabalarari irekitzea eta irakurleei kazetaritzaren gakoak eskaintzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2018-06-15

08:45 - 09:00	Dokumentazio banaketa
09:00 - 09:15	“Ongi etorria” Beatriz Zabalondo Loidi EHU / BERRIA - EHU irakaslea / lehendakaria
09:15 - 10:30	“Informazioaren eta Komunikazioaren beharraz eta indarraz, garai berrietan” Martxelo Otamendi Egiguren BERRIA Taldea - Egunkariko zuzendaria
10:30 - 11:30	“Komunikazioa eta komunitatea” Iban Arregi Epelde BERRIA Taldea - Kontseilari ordezkaria Ainara Lasa Perez BERRIA Taldea - Marketin arduraduna
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:30	“Estilo liburua: Gure erreferentziak egunerokoan” Beatriz Zabalondo Loidi EHU / BERRIA Taldea - Irakaslea / Lehendakaria Irene Arrarats Lizeaga BERRIA Taldea - Euskara Taldearen burua. Estilo Liburuaren arduraduna
16:00 - 17:45	Mahai ingurua: “Komunikazioa eta emakumeak: hegemonia kontuak erredakzioetan” Kattalin Miner Perez Idazlea, sortzailea (Moderatzailea) Maialen Berasategi Catalán BERRIA Taldea - Euskara Taldeko zuzentzailea, itzultzailea June Fernández Casete Pikara Magazine - Kazetaria Elixabete Garmendia Lasa Hainbat medio - Kazetaria Maite Asensio Lozano BERRIA - Kazetaria

Zuzendaritza



Beatriz Zabalondo Loidi

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA, UPV/EHU, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea

Doktore da (2014-12-3), Komunikazioan. Ikus-entzunezko euskal itzulpengintzaren inguruan egin du tesia, EHUn. 2011tik irakasle da EHUn; aurretik, zazpi urtez irakatsi zuen Mondragon Unibertsitatean. Unibertsitatean sartu baino lehen, euskal hedabideetan aritu zen lanean: 25 urtez, EITBrako ikus-entzunezko itzultzaile-egokitzaile gisa; telebistan, barne produkzioako serieetan, aktoreen hizkera zaintzen (Duplex, Martin, Goenkale...), eta prentsan, zuzentzaile (Euskaldunon Egunkaria, Berria). Urte horien fruitu dira ikus-entzunezko hizketa moldeei buruzko tesia eta hainbat argitalpen zientifiko, eta prentsarako estilo liburuak (Euskaldunon Egunkaria, Berria). Berria Taldeko Administrazio Kontseiluko kide da 2011ko ekainetik, eta presidentea, 2013ko ekainetik.

Irakasleak



Irene Arrarats Lizeaga

1967an jaioa, Hernanin (Gipuzkoa), eta Filosofia eta Letretako lizentziaduna. 'Euskaldunon Egunkaria'-ko zuzentzaile-itzultzailea izan zen 1991tik itxi zuten arte. 'Berria' egunkariko euskara-arduraduna da, eta estilo-liburuaren zuzendaria. 2007az geroztik, Euskaltzaindiaren zenbait batzordetan dihardu: Hiztegi Batuko lantaldean, Exonomastika batzordean eta Euskaltzaindiaren Hiztegia-Adierak eta Adibideak lantaldean. Era berean, 'Euskara Batuaren Eskuliburua' ondu duen batzordeko kidea da. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 2018ko uztailan. Hainbat ikastaro eta hitzaldi eman ditu unibertsitateetan eta abarretan idazkuntzari, itzulpengintzari eta hizkera sexistari buruz, eta zenbait artikulu idatzi, euskara batuari buruz batik bat. Monique Wittigen 'Pentsamendu heterozuzena'-ren itzultzaileetako bat da.



Iban Arregi Epelde



Maite Asensio Lozano

Kazetaria Berria egunkarian, 2007tik: erredaktore izan naiz Bilbon (tarteka Bizkaiko Hitzako zuzendari aritu nintzen urtebetez); egun, Andoaingo egoitza nagusian egiten dut lan, Gizartea saileko koordinatzaile. 2014an Prentsaren Argia Saria eman zidaten, berdintasunaren esparruan egindako ekarpenagatik. Kazetaritaz eta feminismoaz hausnartzeko hainbat ekimenetan parte hartu dut: Kazetarion Berdinsarea taldean eta Pikara magazinaren sorreran, besteak beste. Komunikazio ex-sexistari buruz Begirak hedabideekin eta publizitate agentziekin landutako kode deontologikoaren lanketan parte hartu nuen; 2017 amaieratik, Begiraren aholku batzordeko kide naiz.



Maialen Berasategi Catalán

Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziaduna (EHU, 2007-2011). Espezialitatea: euskara, ingelesa eta alemana. LAN ESPERIENTZIA • Euskara-zuzentzaile eta itzultzaile Berria egunkarian (2011-2013 eta 2015-). • Literatura Unibertsalaren bildumaren itzulpen-lehiaketan irabazle: R. West, Soldaduaren itzulera (EIZIE, 2013). • Ikasmaterialen arloko euskara-zuzentzaile, Elkar argitaletxearentzat (2013-). • Itzultzaile eta zuzentzaile Iruñeko Udalean (2013-2014). • EHUko liburu akademiko batzuen itzultzaile, giza eta gizarte zientzien alorrean (2016-2018). • Adrienne Richen antologiaren itzultzaile, Susa, Munduko Poesia Kaiaren bilduma (2017). • M. Wittigen Pentsamendu heterozuzena saiakeraren itzultzaile, beste batzuekin batera, Susa etxearentzat (2017). • C. Patemanen Kontratu sexuala saiakeraren itzultzaile, Eskafandra bildumarako (2018) • Berria Komunikazio Eskolan hizlari (2018) • Zuzenketa-lana: tipula zuritzen' ikastaroko irakasle, Irene Arraratsekin batera, EIZIEk antolatuta (2018-19)



June Fernández Casete

June Fernandez kazetari bizkaitarra da. Pikara Magazine hedabide feministaren sortzailea; hamar urtez koordinatu du. Egun, askotariko komunikabideetan idazten du ikuspegi feminista intersektionalarekin; bereziki, Pikaran eta ARGIA aldizkarian. Euskararen erabilera inklusiboari buruzko ikastaroak gidatu ditu, UPV/EHUn, Eusko Jaurlaritzan eta IVAPen. Zinegoak "Nola esan/izan bollera euskaraz" egitasmoa koordinatzen du, Amaia Alvarez Uriarekin batera. Histeria Kolektiboaren "Amatasun bolloak" proiektuan eta Pikarak sortutako Berbalagun feminista taldean ere parte hartzen du. Urdin elektrikoa proiektua jarri du martxan Bilboko BIRA kultur gunean: euskal kulturako feministekin solasaldia eta emanaldiak. 2018. urteko Euskaraldian Bilboko Hamaikakoan parte hartu zuen, eta esperientzia horrek eragin handia izan du bere ibilbide linguistikoan. Hainbat elkarte feminista, lesbianista eta antiarrazistetako kide izan da. Egun, Larrabetzun bizi da eta herri horretako Zutunik! talde feministan militatzen du.




Elixabete Garmendia Lasa



Ainara Lasa Perez

BERTAKO HEDABIDEAK S.L



Kattalin Miner Perez

Kazetaritzan lizentziatua da EHU/UPVn, Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatuko masterra egina UABn eta Gizon eta Emakumeen Berdintasuneko masterra EHU/UPVn. Kazetari gisa, komunikazio arloa eta berdintasun formakuntza izan ditu ogibide. Bere ibilbide feministagatik ezaguna da eta baita zutabegile bezala hainbat komunikabideetan egindako lanagatik ere. 2015ean Igartza Saria irabazi zuen eta horren fruitu da “Nola heldu naiz ni honaino” (Elkar 2017) bere lehen eleberria.



Martxelo Otamendi Egiguren

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2018-05-31 ARTE	2018-06-15 ARTE
OROKORRA	34,00 EUR	40,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	20,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	20,00 EUR	20,00 EUR
ELKAR txarteldunak	30,00 EUR	-
AEK euskaltegiko kide	30,00 EUR	-

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa